



# Gaborak 2019

UROLA KOSTAKO HITZA



**IRABAZI 300€  
ETA 6 OTAR EDER  
ZURE EROSKETEKIN**

**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

Bozkatu Facebook bidez eta irabazi 100€

**ABENDUAREN 10ETIK 30ERA**



• UROLA KOSTAKO •

# HITZA

4-14

## EGITARAUAK

10 proposamen  
San Silbestre lasterketak  
Olentzero  
Erregeak  
Jaiotzak  
Haur parkeak

16-22

## PUBLIERREPORTAJEAK

Trikote  
Alazne Agirrezabalaga  
Izpi optika  
Larsabi elkarte

24-28

## ZOKKETAK ETA OPARIAK

Zozketak  
UKT  
Azkuelek  
Ekain albaitaritza

29-30

## BEREZIAK

Azkoitiko karta jokoa  
Aiako Slaloma

32-34

## GABON KANTAK

Argitaratzailea:

**Urolako Komunikazio Taldeak**

Zuzendaria:

**Onintza Lete Arrieta**

Kudeatzailea:

**Uxua Ostolaza Egaña**

Publizitatea:

**UKT komertzial taldea**

Testuak:

**Aitziber Arzallus**

Diseinua:

**Ane Azkue**

Helbideak:

**Soreasu, z/g**

**AZPEITIA**

**Araba kalea, 27 behe**

**ZARAUTZ**

**943-81 38 41**

**943-89 00 17**

**urolakosta@hitza.eus**

**www.urolakosta@hitza.eus**



# GABONETARAKO 10 PROPOSAMEN



- 4 1. Abenduaren 21ean, Santo Tomas eguna Azpeitian. Festa izango da egun guztian: txorizoa eta taloa dastatzeko aukera, pilota partidak, bertsolariak, musika eta parranda.



2. Abenduaren 24an eta 31n, karten jokua, Azkoitiko tabernetan. Arratsaldeko poteo garaian izango da. Tabernariak kartak salduko dizkiete bezeroei, eta ondoren sariak banatuko dituzte.



3. Abenduaren 24an, XVIII. Mus Txapelketa Azkarra, Azpeitiko Mendizaleen tabernan. 15:30ean hasiko da lehia, eta egunean bertan eman beharko da txapelketa-rako izena. Bikote bakoitzak 30 euro ordaindu beharko du eta sari potoloak jasoko dituzte irabazleek.



4. Abenduaren 26an, Zoroperi eguna, Zestoan. Eguerdietan baseritarren eta artisauen azoka egingo dute, baita barazki, ezti eta gazta lehiaketak ere. Egun guztiko festa izango da.



5. Abenduaren 20an, 13. Kopla Txapelketa, Zarauzko Putzuzulo gaztetxean. 22:00etan hasiko da. Bertsolariak: Sarai Robles, Asier Galarza, Onintza Enbeita, Agin Laburu, Maialen Lujanbio, Julen Zulaika, Ane Peñagarikano, Maddi Ane Txoperena, Gorka Maiz eta Unai Mendizabal.



6. Abenduaren 26an, Gabonetako xake txapelketa, Zumaiako Alondegian. 16:00etan hasiko da 14 urtez azpikoen txapelketa eta 18:00etan helduena.



8. Abenduaren 31n, XIX. San Silbestre lasterketa, Azpeitian. Bi lasterketa egingo dituzte: 11:30etan hasiko da lasterketa irekia, eta 12:00etan herrikoia. Lasterketa irekia inklusiboa izango da, izen-ematerik eta sailkapenik gabea. Lasterketa herrikoian parte hartzen dutenek, berriz, sei kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.



7. Abenduaren 31n, Aiako V. Slalom, Aiako Ubegun industriagunean. 09:00etan egingo dituzte egiaztatze teknikoak eta administratiboak, 10:00etan egingo dute entrenamendu saioa eta ondoren erlojuaren kontrako probak.



9. Urtarrilaren 1ean, Erlora irteera, Azpeitiko Lagun Onak Mendi Bazkunarekin. Urtero bezala, 09:00etan abiatuko dira Azpeitiko plazatik. Euskal presoek eskubi-deen aldeko argazkia aterako dute 11:00etan tontorrean, eta turroia eta xanpaina dastatzeko aukera izango da bertan.



10. Abenduaren 5tik urtarrilaren 6ra, Gabonetako Jaiotza, Zarauzko Narros jauregian. Schola Cantorum abesbatza arduratzen da jaiotza jartzeaz eta zaintzeaz. Egunero izango da bisitatzeko aukera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Ekitaldi nagusia abenduaren 24an egingo dute, 18:30ean.

# AURTENGO AZKEN KIROL PROBAK

Geroz eta gehiago dira Urte-zaharreko gehiegikerien atarian, gorputza azken ahalegintxo bat egitera behartu eta izerdi pixka bat ateratzera animatzen diren herritarrak. Abenduaren 31ko San Silbestre lasterketak aukera ezin hobea dira horretarako.

## Aia

11. aldiz egingo dute proba, 17:00etatik aurrera. Helduek bi itzuli eman beharko dizkiote herrian barrena prestatuko duten ibilbideari —hiru kilometro—; umeez, berriz, itzuli txiki bat.

## Aizarnazabal

12:00etan udaletxe aurrean hasiko da proba, eta ibilbidea urterokoa izango da. Helduek lau itzuli eman beharko dizkiote herriko kaskoari, eta bakarra eman beharko diote haurrek.

## Azpeitia

XIX. San Silbestre lasterketa izango da aurtengoa. Bi proba izango dira: 11:30ean hasiko da lasterketa irekia, eta 12:00etan herrikoa. Lasterketa irekia inklusiboa izango da, izen-ematerik eta sailkapenik gabea. Lasterketa herrikoian parte hartzen dutenek, berriz, sei kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

## Getaria

San Silbestre lasterketa herrikoien hamaseigarren edizioa izango da aurtengoa. 12:00etan hasita, hainbat proba egingo dituzte, adin mailaka banatuta, eliza aurretik irtenda. Benjamin aurrekoek (6-7 urte) 200

metroko korrikaldia; benjaminek (8-9 urtekoak), 700 metrokoa; alebinek (10-11 urte), 1.250 metrokoa; infantil-kadeteek (12-15 urte), 1.750 metrokoa; eta helduek (16 urtetik gora), 3.300 metrokoa.

## Orio

Bi proba jokatu dira. Umeena 11:30ean hasiko da, eta parte hartzaileek buelta txikia egingo dute. Helduen lasterketari, berriz, 12:00etan emango diote hasiera, eta korrikalariek buelta txikiagatik, handia ere eman beharko dute.

## Zarautz

San Silbestre proba korrika zein irristaka egiteko aukera egongo da Zarautzen. 17:00etan, 13 urte bitarteko neska-mutilak aterako dira korrika eta 17:05ean, irristaketakoen txanda izango da. Jarraian, 17:30ean korrika aterako dira gazte eta helduak, eta 18:00etan nagusien irristaketa proba abiatuko

dute. Proba guztiak Musika plazan hasi eta bukatuko dira. Txikienek Alde Zaharrari itzulia ematen dioten bitartean, helduek lau kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

## Zestoa

17:00etan hasiko dute proba, eta parte hartu nahi dutenek 16:00etatik 16:45era bitartean eman beharko dute izena. Lehenengo umeen eta gaztetxoentzako txanda izango da; 150 metro egin beharko dituzte, plazatik irtenda. Ondoren hasiko da 16 urtetik gorakoena, eta horiek 2,4 kilometro egin beharko dituzte.

## Zumaia

Proba antolatzen duten hamargarren aldia izango da aurtengoa. 12:00etan haurrak hasiko dira, eta 12:30etan izango da helduen txanda. Benjaminek eta aurrebenjaminek 250 metro egin beharko dituzte korrika; 1.100 metro alebinek eta infantilek; eta 5.000 metro helduek.

PremietxeBeri

PremietxeBeri Baserria • Azpeitia • PremietxeBeri@hotmail.com

f PremietxeBeri.Baserria g PremietxeBeri





# HERRIXEN Gabonak

ABENDUAREN 7 TIK 20 RA

Azkoitia Visa txartelarekin ordainduz,

**GABONETAKO  
20 otarren  
ZOZKETA**

URTARRILAREN 7 AN

**Gabonetako Errifa potoloa:  
500 eurotako  
3 sari  
zozketatuko dira**

Otarren sari banaketa: Abenduak 20, ostirala, Etxe Beltzen 20:30ean



# OLENTZEROREN ETA MARI DOMINGIREN ZAIN

Aurten ere Olentzerok eta Mari Domingik eskualdeko herri guztietan egingo dute geldialdia, etxeetan opariak utzi baino lehen. Haurrak izango dira haiekin egoten aurrenak, ikastetxez ikastetxe ibiliko baitira Gabonetako oporraldia hasi bezperetan. Abenduaren 24an, berriz, herritar guztiek izango dute aukera hori. Horrez gain, ohitura zaharrei eutsiz, herri guztietan kalera aterako dira herritarrak kaleak Gabon kantuekin girotzera.

## ABENDUAK 24, ASTEARTEA

### Aia.

09:00etan Gabon eskea, plazatik hasita baserrietara.  
18:00etan Gabon eskea, plazan hasita, herrian zehar.

### Aizarnazabal.

Goizean zehar Gabon eskea, eta eguerdian Mari Domingiren eta Olentzeroren bisita.



### Azkoitia.

Olentzero eliza atarian egongo da, 12:00etatik aurrera, haurren gutunak jasotzeko.

### Azpeitia.

11:45ean, Olentzero eta Mari Domingi San Martin egoitzan. 12:30ean, ikasleen kalejira Artzubia etorbideetik. 13:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren harrera ekitaldia, plazan.

### Errezil.

09:00etan, Gabon eskea, plazatik abiatuta, herritar guztientzat.

### Getaria.

18:30ean, herriko taldeak kalez kale kantari ibiliko dira, Olentzerori etorrera eginez.

### Orio.

17:30ean, txokolatada, ttunturroak, sorginak eta abar. 18:30ean, plazan, Mari Domingi eta Olentzerori ongietorria.

### Zarautz.

Olentzeroren festa, Santuiturri plazan: 10:30ean haurrentzako txokoa, 12:30ean herri kirolak, 16:45ean ipuin kon-

talaria, eta ondoren, Olentzeroren etorrera.

### Zestoa.

Egun osoan zehar, Gabon kantak kaleetan zehar. 18:00etan, Olentzeroren etorrera, plazan.

### Zumaia.

Eguerdia bitartean, eskea. 15:30etik aurrera, Gabon kantak kalean. 18:00etan, Olentzero eta Gomezago.



# agirre

oparidenda

lanpara, koadro, altzari txikiak, apaingarriak

erdikale, 1 - azpeitia  
943-81 13 25





# GABONAK 2019



4  
X  
250€



4  
X  
500€



**ABENDUAK 2 - 31**



**MURKIL**  
Zorazko  
Dendarien elkarteoa

[www.murkil.com](http://www.murkil.com)

*Euskadi, azalera, bizi onia*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TIKORRIK DIRA GURE GURE  
ETXERAKO GURE

BERNARDINETA DE LA ROSA  
BERNARDINETA DE LA ROSA

# TRAKATAN- TRAKATAN, HIRU ERREGE...

Gabon garaiko ospakizunei amaiera emateko, Errege Magoak izango dira eskualdeko herrietan bisitan, itsasontziz, trenez, karrozetan... iritsita. Erregeen etorrera iragarriz, aurretik Bizarzuri edota erregeen postariak eta pajeak etorriko dira haurren gutunak jasotzera.

## URTARRILAK 4

**Aia.** 19:00etan, Bizarzuriren etorrera.

**Azpeitia.** Errege Magoen pajeen bisita, 17:30etik aurrera, Sanagustinpean edo udaletxeko arkupeetan.

**Getaria.** Bizarzuri Errege Magoentzako eskutizak jasotzen ariko da, 18:30ean, herriko plazan.

**Zarautz.** Bizarzurik ibilaldia egingo du herriko kaleetan zehar, Santa Ana egoitzatik aterata, 16:30ean. Lege Zaharren Enparantzan, 17:00etan, eskutizak jasoko ditu. Eguraldi txarra eginez gero, Gaztelekuan.

**Zumaia.** Erregeen pajeek gutunak jasoko dituzte Behoko plazan 18:00etik aurrera.

## URTARRILAK 5

**Aia.** 18:00etan, Errege Magoen desfilea herrian barrena.

**Aizarnazabal.** Errege Magoen desfilea, 18:00etan, Atari Soro frontoian.

**Azkoitia.** 16:30ean, Erregeen pajeak eskutizak jasotzen ariko dira eliz atarian. 19:30ean, Errege Magoen desfilea izango da Azkoitiko kaleetan zehar, Santa Klaratik abiatuta. Plazan, Herodesen gaztelua bisitatuko dute, eta ondoren, eliz atarira iritsiko dira.

**Azpeitia.** Txu-txu trenean helduko dira Errege Magoak Azpeitira. 17:30ean Soreasuko Sebastian Donearen Parrokiaren aurrean izango dira. Desfilea 19:00etan hasiko da, igerilekuaren aurretik.

**Getaria.** Errege Magoen desfilea herriko kaleetan zehar, 18:30etik aurrera.

**Orio.** 11:00etan, Errege Magoen postaria. Bizarzuri aterako da Anibarko Portutik. 17:00etan, Erregeen desfilea herrian barrena. Karela kiroldegian bukatuko dute ibilbidea.

**Zarautz.** 18:30ean, Errege Magoen desfilea, Bizkaia kaleretik abiatuta. Lege Zaharren Enparantzan Jesusi abes-tuko diote, eta zaharren egoitzara joango dira.


**Zestoa.** Errege Magoen desfilea, 18:30etik aurrera. Arroa Behean, 18:30ean tren geltokira iritsiko dira Errege Magoak, eta ondoren, umeen danbor hotsen laguntzarekin, Karmengo Amaren elizara joango dira opariak ematera.

**Zumaia.** Itsasontziz helduko dira Hiru Erregeak, eta Ludotekatik abiatuko da desfilea, 18:30ean. Herriko plazan, Jaiotzan eskaintza egin ostean, Ludotekan amaituko da. Aurretik, Erregeak Otezurin eta San Juan egoitzetan egongo dira.

**sakona**  
omuntzo etxalde ekologikoa

**LASTER ARDI ESNEAREKIN  
EGINDAKO JOGURTAK**

677 98 75 70 • sakonaetxaldea@gmail.com  
sakonaetxaldeekologikoa • AZPEITIA





*Aurrez-errea*

**Km0**  
**baserria**

## EUSKAL ESNE BILDOTSA

Baserria Km0 osatzen dugun abeltzain eta artzainek, hain gure den produktu hau jateko ohitura berreskuratzerako animatu nahi zaituztegu. Plazer bat delako, gure zainetan dagoelako eta, gainera, produktu hau kontsumituz artzaintzaren etorkizuna ziurtatzen laguntzen dugulako eta, horrekin, gure paisai eta ingurumena ezagutzen ditugun moduan mantentzen laguntzen dugulako.

Eta horiek denak nahiko arrosai ez balira, baserria km0koek, latxa ordiaren arkumea hurrez-errea eskaintzen dizuegu. 20-25 minututan prest.

## OPARIA!

BEHI  
HAMBURGUESA  
Kg 1



Mapa ikus: urtararen 15

Zuen konfiantza eskertzeko, WhatsAppez 605 711 844 zenbakira produktu eta erosketari buruzko informazioa bidaltzen badiguzue, behi hamburguesa kilo batekin oparituko zaituztegu.

Zerekin egina:  
Elaborado con:



*Samurra eta Kurruskaria*

Bila ezazu zure harategian edo Eroski dendetan.

# NARROS JAUREGIKO JAIOTZA PREST

12

Egunotan zabalduko dute Zarauzko Narros jauregiko lorategian jartzen duten Gabonetako Jaiotza. Lehen Gabon Egunean irekitzen bazuten ere, duela pare bat urte data hori aurreratzea erabaki zuten Zarauzko Udalak eta Schola Cantorum abesbatzak, herritarrek egun gehiagotan izan zezaten hura bisitatzeko aukera. Dena dela, Jesus haurtxoaren irudia ez dute Gabon Egunera arte eramango estalpera. Urtero legez, Schola Cantorumek kantu ekitaldia egingo du hilaren 24an, eta orduan jarriko dute haurtxoa; 18:30ean hasiko da saioa. Abesbatzak kantatzeaz gain, abestien eskuorriak banatuko dituzte herritarren artean, haiek ere abestera animatu daitezen.

Schola Cantorumek mende erdia baino gehiago darama Gabonetako Jaiotza antolatzen Narros jauregian.

«Garai batean jaiotza biziduna egiten zen, eta gurdi batean joaten ziren, Erregeen atzetik», gogora ekarri du Jabier Izeta Schola Cantorumeko kideak. Abesbatzak 1961ean muntatu zuen lehen aldiz tamaina errealeko figurekin osatutako jaiotza estatiko bat. Hasieran figura finkoak ziren; horietako asko eskaiolazkoak, eta beste batzuk egurrezkoak. Kanpoan egoten zirenez, hasierako figura haiek hausten joan ziren, eta 1987an, udalarekin programa bat adostu zuten, urtero-urtero elementuak berri-tzen nahiz osatzen joateko. Hamalau bat urte egin zituzten horrela.

Pixkanaka-pixkanaka, figurak berri-tzen, haiei mugimendua ematen, argiztapena atontzen eta beste lan batzuk egiten joan dira. Nolanahi ere, mantentzen dituzte hasiera-hasierako figurak: bi aingeru eta deikundeko artzaina. Egurrezko tailak dira horiek, eta duela bi urte aingeruen buruak eta eskuak zaharberritu zituzten.

Udalak Abendaño industrialdean uzten dien lokal batean gordetzen dituzte jaiotzako figurak eta eraikinak, eta han dute elementuak zaharberritzeko



nahiz konpontzeko tailerra ere. Urte guztian zehar izaten dute zer egina, jaiotzako irudiak txukun mantentzea ez baita txantxetako lana. Jaiotza zabaldu aurreko astean, berriz, irudi guztiak banan-banan eraman behar izaten dituzte Abendañotik Narrosera.

Irudiez gain, animalia biziek ere osatzen dute jaiotza. Oiloak, untxiak, antzarak eta indiolarrak ipintzen dituzte figurekin batera. «Urte batean, enkargatutako figura batzuk ez ziren garaiz iritsi. Ondorioz, oilo batzuk jarri genituen osatzeko, eta horrela hasi ginen», azaldu du Izetak. Egun, Isidro Larrañagak uzten dizkie animalioak.

Jaiotzaren muntaketarekin ez dira amaitzen Schola Cantorumeko kideen lanak, zabalik dagoen egunetan mantentze eta zaintza lanak egin behar izaten baitituzte: animaliei jaten eman, mekanismoek ongi funtzionatzen dutela begiratu, eguraldiaren eraginez erori edo mugitu diren figurak ongi kokatu...

**Urtarrilaren 6ra arte egunero egongo da Narros jauregiko jaiotza bisitatzeko aukera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.**

# JAIOTZAK IKUSGAI

## Azpeitia

-Parrokian, abenduaren 25etik urtarrilaren 6ra egongo da ikusgai, 17:30etik 20:00etara.

-Frantziskanetan, abenduaren 25etik urtarrilaren 6ra egongo da ikusgai, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean.

## Azkoitia

Parrokian, abenduaren 23tik otsailaren 2ra egongo da ikusgai, 09:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:30era.

## Zumaia

Beheko plazan estalpea jartzen dute, baina ez da beti beteta egoten; abenduaren 24an eta urtarrilaren 5ean, bai.

## Getaria

Lehen udaletxe azpian jaiotza jartzeko ohitura zuten arren, azken urteetan ez dute jarri. Liburutegiko balkoian jarri ohi dute orain.

## Zarautz

Narros jauregian, abenduaren 5etik urtarrilaren 6ra egongo da ikusgai, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.



## GABONETAKO PARKEAK, HAURRENTZAT

14

Haurrak dauden etxeetan kolore berezia izaten dute Gabonek. Hein batean, haiek dira urte sasoi honi zentzua ematen diotenak. Baina dena ez da izaten magia eta ilusioa. Bi asteko oporraldian haiek entretenituta izateak nahikoa lan ematen die zenbait gurasori. Horren jakitun, haurrei zuzendutako jarduera ugari antolatu ohi dituzte udalek eta elkarteek. Zinema emanaldiak, ipuin kontalariak, eskulan tailerrak, ikastaroak, irteerak... Arrakastarik handiena, ordea, Gabonetako haur parkeek izan ohi dute, prezio eskuragarria eta ordutegi zabala izateaz gain, haurrei primeran pasatzeko bidea ematen dietelako. Aurtan ere eskualdeko hainbat herritan antolatuko dituzte.

### Azkoitia

Abenduaren 26an, 27an eta 28an jarriko dute Gabonetako haur parkea, Azkoitiko Elkar-gunean. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

### Azpeitia

Abenduaren 26an, 27an eta 28an egongo da parkea zabalik, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Izarraitz pilotalekuan. Horrez gain, emanaldi bereziak egiteko asmoa iragarri dute.

### Getaria

Urtarrilaren 3an jarriko dute Gabonetako haur parkea, printzipioz frontoian; eguraldi txarra edo hotz egingo balu, Sahatsaga kiroldegian jarriko lukete. 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30etara egongo da zabalik.

### Orio

Abenduaren 30ean jarriko dute Gabonetako haur parkea Karela kiroldegian. 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era egongo da zabalik.

### Zarautz

Abenduaren 26an zabalduko dute, 16:00etatik 19:00etara, baina egun horretan aniztasun funtzionala duten umeentzat bakarrik. Gainontzekoek abenduaren 27an eta 28an izango dute parkeaz gozatzeko aukera, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Ohi bezala, Aritzatalde kiroldegian jarriko dute parkea.

### Zumaia

Lubaki kiroldegian jarriko dute Gabonetako haur parkea eta abenduaren 27an eta 28an egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era.



# LARRAMENDI Tien21

Berehala sukaldeen erakustoki berria



Julio Urkixo etorb.13 · AZKOITIA  
943-85 19 61  
[www.larramendijauregi.com](http://www.larramendijauregi.com)



## BEZERO BAKOITZARI, BERE JANTZIA

Ana Alberdi eta Mari Karmen Lopez jostunak dira, bizitza osoa daramate josten, baina haien jarduna ez da mugatzen galtza barrenak hartu eta kremailerak konpontzera. Sortzea gustatzen zaie, eta duela hamar bat urtetik baserritar jantziak egiten dituzte, Zarauzko Zigordia kaleko Trikote dendan. Haurrentzako zein helduentzako, emakumeentzako zein gizonentzako, edonorentzako jantziak josten dituzte, baina ez edonolakoak. Jantzi bakoitza da bakarra eta eksklusiboa; ez dituzte bi berdin egiten.

Alberdik eta Lopezek mainaz eta maitasunez sortzen dituzte baserritar jantziak, hasieratik bukaeraraino. Oihalak banan-banan aukeratzetik haiekin egindako jantziak bezeroen soinera egokitzeraino. Gonak, mantalak, blusak, alkondarak, blusoiak, txalekoak... denetarik egiten dute, eta haietako bakoitzak ditu besteengandik desberdin egiten duten berezitasunak. Jantzi batzuek besteek baino lan handiagoa dutela diote, eta bakoitzari eskaintzen dioten denbora, duten lanaren arabera izaten dela, baina gutxi gorabehera pare bat egun behar izaten dituzte emakumeentzako jantzi bat goitik behera egiteko.

### Gaizki janztekotan, hobe ez jantzita

Euren bezeroak dotore janzten dituzte, baina baserritarrez egoki janzten ez den jende asko dagoela uste dute Trikoteko jostunek. "Pixka bat berritzea ondo dago, baina badira ezinbestean errespetatu beharreko gutxieneko batzuk; denak ez du balio". Adibidez, gona motzegiak eta jantzi koloretsuegiak erabiltzea ez dute egoki ikusten, eta haien esanetan, "gaizki jantzea baino hobe da ez jantzea". Neskek belauetik beherako gona eraman behar dutela diote, gaineratik mantala,

**«Pixka bat berritzea ondo dago, baina badira ezinbestean errespetatu beharreko gutxieneko batzuk; denak ez du balio»**

Mari Karmen Lopez

blusa eta lepoan zapia. "Eta gehiegi eskatzea ez bada, buruan zapia ere bai". Horiek gutxienez; hortik aurrerakoak, osagarriak dira. Oinetan, berriz, euren jantziei alpargatak etortzen zaizkie ondo. "Neguan, euriarekin edo eguraldi oso txarrarekin, botinak ere jantzi daitezke,







baina lokarridunak izan daitezela, lehengo erakoak”, zehaztu dute.

Emakumeen jantzien koloreei dago-kienez, beltza, grisa, urdina, granatea eta berdea dira Alberdiri eta Lopezi gehien gustatzen zaizkienak, eta baita bezeroen artean arrakastarik handiena dutenak ere. “Kolare biziagiak ez ditugu atsegin, horia eta laranja eta horrelakoak, baina bezeroen batzuk eskatu izan dizkigute”.

Mutilen janzkeran ere badira ezinbesteko batzuk. Galtzak, alkondara, gerrikoa, lepoko zapia eta txapela dira gutxienez jantzi behar dituztenak. Gero, blusoia, txalekoa eta beste osagarri batzuk gehitzea dago horiei. Galtza marradunak edo mahonezkoak aukera ona direla adierazi dute Alberdik eta Lopezek, eta beltzak eta grisak ere askok erabiltzen dituztela, estanpatudun txalekoarekin oso ondo gelditzen direlako.

### Hango eta hemengo bezeroak

Zarauzko eta inguruko herrietako jendeak ez ezik, Gipuzkoako beste hainbat

lekutakoak ere badu Trikotera joateko joera. “Azpeititik, Azkoititik, Zumarragatik, Ordiziatik eta Beasaindik jende asko” joaten zaiela nabarmendu dute. Hori bai, denborarekin etortzeko aholkatu diete bezeroei. “Hiru edo lau hilabete lehenago etortzen badira, dendan askoz aukera handiagoa edukiko dute eta zerbait berezia nahi izatera, egiteko denbora izango genuke”. Azken unean doazenek,



berriz, dagoenarekin konformatu beharko dute.

Dena dela, Trikoten urte guztian izaten dituzte baserritar jantziak. “Abuztuan Euskal Jaietarako jantziekin hasi eta Gabonak pasa artekoa izaten da lanik gehiena izaten dugun garaia”. Baina gai-nontzeko hilabeteetan ere ez dira lan faltan ibiltzen. “Denda betetzeko jantziak egiten ditugu, lehenik egindako jantziak konpontzen eta egokitzen ditugu eta taldeen enkarguak egiten ditugu”. Dantza taldeak ere ohiko bezeroak baitituzte Trikoten.



Zigordia kalea, 12 · Zarautz  
943-01 05 97  
trikotejantziak@gmail.com

# GABONEI AURRE EGITEKO ALAZNE AGIRREZABALAGA NUTRIZIONISTAREN 10 AHOLKU:

18



- 1. Gainerakoan, osasuntsu**  
Bi astean lau edo bost otordu handi egin ohi ditugu. Jatordu jakin horietan gehiegikeriaren bat egiteak ez gaitu arduratu.
- 2. Jatordu bereziak zerrenda batean idatzi**  
Gehiegi badira, erabaki zeinetan ezingo dugun "dena libre" egin.

- 3. Plater osasungarriak prestatu**  
Barazkiak erabilia eta frijitutako elikagaiak sahiestuta. Adibidez, aukera ona izan daiteke hasierako gisa barazki ratatouillea, haragiari laguntzeko uraza eta piperrak eta labean egindako patatak jartzea. Inoiz pentsatu duzu turroi eta gozoen ondoan laranja eta anana xerra batzuk jartzea?

- 4. Neurrian erosi osasungarriak ez diren elikagaiak**  
Horretarako, zerrenda etxetik eginda eraman.

- 5. Ez joan ohi baino gose handiagoarekin**  
Hasierako gisa jartzen diren elikagaiak izaten dira koipetsuenak eta irin birfinduetan aberatsenak; hala nola, ahate foie, kroketak, ogia...

- 6. Ura edan**  
Ahalik freskagarri eta alkoholdun edari gutxien kontsumitu, liseriketa prozesua mantsotzen dutelako eta jatorduak pisutsuago egiten dituztelako. Urari fruitu zatiak botata edari goxoak egin daitezke.

- 7. Gozoak etxean egin**  
Turroiak edo pastelak etxean egin ditzakezu, osagaien kalitatea eta kopurua zainduta.



- 8. Urte berriarekin ez da bitziza berria hasten**  
Gure gorputzak lehengo bera izaten jarraituko du. Has gaitezen norbere gorputza maitatzen eta zaintzen, elikadura eta bizi ohitura osasungarriekin. Ez dezagun behar baino gehiago jipoitu, urte berriarekin zaintzen hasiko garen itxaropenarekin.

- 9. Ez utzi jarduera fisikoa egiteari**  
Saia zaitetz egunerokoan egiten duzun adina ariketa egiten. Eguberri eta Urteberri eguneko mendi bueltak aukera onak izan daitezke, baita bazkari edo afari handi bat egin eta gero paseatzera joatea ere.

- 10. Ondo pasa!**  
Gure ingurukoekin une ederrak pasatzea da garrantzitsuenak, ez horrenbeste zer jan dugun!



Alazne

Zigordia kalea, 26 · Zarautz  
943-04 79 42 · 625 34 94 39  
www.alaznedietista.com  
alazneagirrezabalaga@gmail.com





# URDETxE<sup>®</sup>

Baserritarrok Aske Hazitako Txerria  
Cerdo Criado en Libertad por Baserritarras



Baserriko  
Txerria  
Cerdo  
de Caserío

*Un producto · BASATXERRI · produktu bat*

Basatxerri 2004 S.L. [www.basatxerri.com](http://www.basatxerri.com) Tfnoa: 699 09 61 61

## EGIN AZTERKETAK, GABONETAN



Gabonak garai aproposa dira urtean zehar egin ezin ditugun lan horietarako: familiarekin egoteko, aspaldi ikusi gabeko lagunei bisitatxo bat egiteko, eta zergatik ez, entzumen eta ikusmen azterketak egiteko. Azkoitiko Izpi Optikan profesionalik onenak dituzu zain. Zure begiak eta belarriak doan aztertuko dizkizute, haien egoera zein den jakiteko.

Aloña Larrañaga arduratzen da entzumen azterketak egiteaz. "Belarriaren egoera ikusten dugu eta entzuteko gaitasuna neurtzen dugu". Galera dagoeanean, bi aukera egoten direla azaldu du.

"Galera txikia denean, aldizkako azterketen bidez jarraipena egiten diogu bezeroari". Galera handiagoa denean, entzuteko gaitasuna hobetzeko bitartekoak erabiltzea gomendatzen dute, audifonoak, alegia.

Audifonoen esparruan urte gutxian aurrerapen handiak egin dituztela dio Larrañagak. "Gailu txiki eta estetikoak dira oraingoak eta ez dute lehengo aparatu ortopediko haien antzik". Erreparorik gabe erabili behar genituzkeela uste du, "laster guztiok erabiliko ditugulako, beste hamaika gauzatarako". Bezero bakoitzari bere beharretara egokitutako gailuak egiten dizkiote eta hilabetez probatzeko aukera ematen diote, inolako konpromisorik gabe.

### Ikusmen terapien adituak

Entzumen arazoei irtenbidea ematen adituak izateaz gain, ikusmen arazoak konpontzen ere espezialistak dira Izpi Optikan. Gentzane Garcia arduratzen da ikusmen terapia egiteaz. Irakurtzeko arazoak, begi alferrak eta estrabismoak dira ikusmen terapiaren bitartez zuzendu ditzaketen arazoak. Ariketa pertsonalizatuak egiten dituzte horretarako, begiaren mugimenduak, ikuspegiak eta lateralitateak lantzeko.



### Jolas hezitzaileak, kotsolen ordezkariak

Begien eta belarrien osasuna egunero zaindu beharreko zerbait dela uste dute Izpi Optikako profesionalak, eta gazte-txoei aholkatu diete Olentzerori eta Erregeei gutuna idazteko garaian kontuan izateko hori. "Kontsola eta bideo jokoaren ordezkariak, eska ditzatela jolas hezitzaileak. Begiei eta belarriei atsedean pixka bat emateaz gain, familian denbora gehiago pasatzea ahalbidetuko die horrek".

**IZPI OPTIKA**  
Optometria + Audio zentroa

Julio Urkijo hiribidea, 8  
Azkoitia  
943-85 25 11  
info@izpioptika.com



*Izarri, Errege  
opiletan adituak*



*Egin zure erreserba!!*

**DENDAK:**

Foruen plaza, 6  
Tel.: 943-01 05 55

**ZARAUTZ**

Nagusia, 6

Tel.: 943-14 03 55

Herrerrieta, 36

Tel.: 943-14 00 37

**GETARIA**

**OBRADOREA:**

Igarategi, 18.pabilioia

Tel.: 943-14 09 55 / Fax-a: 943-89 60 28

[www.izarri.com](http://www.izarri.com)

# BERTAKO ARKUMEA BEREIZTEN DUEN ZIGILUA

Larsabi elkarteak Latxa arkumea zigiluaren baitan gure baserrietan amaren esnearekin soilik hazten diren arkumeak merkaturatzen ditu. Elkarteak Hego Euskal Herriko artzainak biltzen ditu eta Urola Kostako eskualdean sei baserri dira bertako kide: **Aiako** Agerreburu, E.Z.; Agurtzane Garmendia Flamarique, Arantzostoberri baserria; Ignacio Jauregi Iruetagoiena, Irutetxeberri baserria; eta Gemma Serra Deu, Makatza borda baserria eta **Errezilgo** Milagros Zubizarreta Aramendia, Erkizi Goikoa baserria; eta Maixux Salsamendi Astiazaran, Gorotzene baserria.

**Arkume latxa ama-esnearekin soilik hazten da** baserrietan, modu naturalean, eta, beraz, **kalitate goreneko** arkumea da. **Arkume horien amen elikaduraren oinarria abeltzaintza estentsiboko bazkak eta mendiko larreak** dira batik bat.

Arkume latxaren haragia **ona da osasunerako, eta zapore handikoa. Propietate bereziak ditu hezetasunari dagokionez, eta mamitsua eta leuna da.**

Kalitate handiko elikagai osasuntsuak ekoizteaz gain, ekarpen handia egiten du abeltzaintza estentsiboak, **materia organikoa areagotzen, lur pobreenen landare-estalkia zaildu eta gordetzen eta suteei aurrea hartzen** laguntzen baitu. **Aukera ekonomiko egokia da abeltzaintza estentsiboa, landa-inguruko biztanleria finkatzen duena eta herrietako gizarte-sareari eusten diona.**



Gemma, Makatza borda baserrikoa; Joxemigel, Agerreburu baserrikoa; Ignacio, Irutetxeberri baserrikoa eta Mikel Arantzostoberri baserrikoa. Aiako ekoizleak.



Milagros Erkizi Goiko baserrikoa eta Maixux Gorotzene baserrikoa, Errezilgo ekoizleak.



## Salmenta puntuak:

- Kukulu harategia-urdaitegia, Merkatu Azoka, 12 · ZARAUZ
- Mikel Rezabal harategia-urdaitegia, Gozategi Enparantza, 11 · AIA

## Eskatu latxa arkumea zigilua daraman arkume haragia

**Hego Euskal Herriko haztegieta jai, hazi eta hiltegieta hildako arkumeak dira soilik.**



Informazio gehiago hemen: [info@lurgintza.eus](mailto:info@lurgintza.eus) · 609 43 12 65

# GABONAK 2019 HOTEL & THALASSO VILLA ANTILLA



VILLA ANTILLA

HOTEL & THALASSO

## GABON GAUEKO AFARI BEREZIA

Otarraín krema txangurro kurruskariarekin  
Ganbak aire zitriko eta plankton zukuarekin  
Itsas kabra pastela jengibre eta kurkuma mahonesarekin  
Gulaz beteriko legatza errege-sagarrez eginiko pil-pilarekin  
Hezurgabeko zezen-isats zilindroa gaztaina parmentier-arekin  
Banilla krema eta turroi hostopila fruitu lehor krokantearekin  
Gure bodegako aukeraketa onena

**74€** (ostatuarekin, pertsonako 164€-tik hasita)

## URTEZAHARRETAKO AFARI KOTILIOIA

Ongietorri koktela  
Abakando eta mango entsalada, barazki kimuekin eta iberiko eta sagar karamelizatuz egindako ozpin-olioarekin  
Lutxarbi zuriz eta baratxuriz osatutako parmentier-a bieira errekin  
Aingira bikotea pikillo aparrarekin eta Picual oliba olioaren kabiarrarekin  
Zapoa labean donostiar erara, txirlekin  
Esneko arkume trontzoa bere zukuari patata aparrarekin, aza berdearekin eta tipulin konfitatuarekin  
Anana eta koko krema  
Sagar brioche-a kanela eta ezti aromarekin  
Mahatsa, cava eta Gabonetako gozoak  
Gure bodegako aukeraketa onena  
Kotilioia DJarekin eta bigarren afaia

**140€** (ostatuarekin, pertsonako 229€-tik hasita)



# GEHIGARRIA IRAKURTZEAK OPARIA DU!

Olentzerok eta Errege Magoek bi zaku hauek ezkutatu dituzte Gabonetako gehigarrian.



Topatu itzazu non dauden eta bidali ezazu zein orritan ezkututzen diren eta non [ukt@ukt.eus](mailto:ukt@ukt.eus) helbidera.

Asmatzen duzuenen artean, **MAISOR** Getariako artisau kontserbak eta **BASA LORE** txakolinaren eskutik **sari potoloak** zozketatuko ditugu.

\* Orri honetan ageri diren irudiak azalpenaren zati dira, ez dute erantzun bezala balio.

## PARTE HARTU GURE GABONETAKO ZOKKETAN ETA IRABAZ ITZAZU SARI POTOLO HAUEK!



### MAISOR

Getariako artisau kontserbak

#### 2 sari

Antxoak bustinezko ontzian, artisau kontserba Kilo bat



### BASA LORE txakolina

#### 4 sari sorta

Basa Lore botila bat  
Igartzeta txakolin botila bi  
Basa Lore ardoa zerbitzatzekoa







## *Antxoa egin berriak une berezietarako*

Getariako antxoa egin berriak prestatuko dizkizugu Gabon hauerarako. Mimoso xerratutako antxoa egin berriak direlako goxoenak.

8 hilabetez gatzetan pazentziaz ondutako Kantauri  
Itsasoko antxoak  
Artisau eskuekin landuak.  
Testura mamiak, gatz puntu orekatua eta garbiak.  
Getariako antxoa egin berriak.



Egin zure  
eskaera eta  
jaso  
zuzenean gure  
obradorean

943-14 09 93  
[info@maisor.com](mailto:info@maisor.com)



[maisor.com](http://maisor.com)

# UKT: OPARITU ESKUALDE OSO BAT



Maite duzun horri opari berezi bat egin nahi diozu?  
Oparitu tokiko informazioa euskaraz

- **Urola Kostako kalitatezko informazioa** eta gertukoa izango du eskura.
- **Txokoko zozketetan parte hartu ahalko du.**
- Eta hizkuntzaren biziberritzea bultzatuko du.

## IZAN ZAITEZ UROLA KOSTA ESKUALDEKO EUSKARAZKO KOMUNITATEAREN PARTE

HITZA

UROLA KOSTAKO  
**HITZA**

79€

KARKARA

**KARKARA**

39€

BALEIKE

**BALEIKE**

40€

UZTARRIA


**uztarría**

30€



AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

MAXIXATZEN

 **MAXIXATZEN**

25€

Informazioa eta  
harpidetzen kudeaketa

**ukt@ukt.eus** edo  
**943-89 00 17** (Zarautz)  
**943-15 03 58** (Azpeitia)

# OPARI PROPOSAMENAK azkuelek-EN ESKUTIK

1.



3.



5.



2.



4.



6.



**1. Lanpara 28,85€** (altuera: 42cm, diametroa: 23 cm) **2. Dokumentuak eramateko bidaia-zorroak: 35,65€** edo **43,25€** diseinuaren arabera (25x15cm)  
**3. Gabonetako panpinak: handia 31,55€** (altuera: 43cm); txikia **31,55€** (altuera: 30cm) **4. Mantak, kolore askotan: 29,10€** (130x170 cm) **5. Munduko bola, 106,45€** (altuera 92cm) **6. Bitxiontziak: handia 35,60€** (31x21x10cm); txikia **28,65€** (23x17x9 cm).

 **azkuelek**

Zigordia kalea, 11 · 943- 13 04 33  
 Araba kalea, 41 (Eroski ondoan) · 943-13 33 08  
 Zarautz

  · [azkuelek@gmail.com](mailto:azkuelek@gmail.com)

**«Carrier» transporting-a**

Katuak bidaiak gustuko izan ditzan, saski eramangarria.

**49,95€**

**Vari Kennel ultra transporting-a**

100x70cm-ko transporting ezinhobea.  
Txakur handientzat egokia.



**150€**

**Egurrezko etxola**

80x120x95 cm.  
Txakur handientzat babesleku ezinhobea.  
Kanpoan zein barruan jarri liteke!

**120€**



*Animaliek ez dute pilarik eta ez dira armairuan gordetzen, ez itzazu oparitu!*

**ETXEKO ILETSUENTZAT KUTIXIAK****Telazko transporting-a**

70x52x52 cm-ko transporting zurrun eta era berean guztiz tolesgarria.

**119,90€**

**Katuaren tunela**

38x30x30 cm-ko gordeleku ikusgarria.  
Erabat erabilgarria eta arraskari ederra.

**64€**

**«Udaberri» sofa/ohe akoltzatua**

68x54x36 cm-ko ohe erosoak.  
Txakur ertainek atseden hartzeko paregabea.

**69€**



# KARTEN JOKOA, AZKOITIAN TRADIZIO



Familiako otorduak, eskean irtetea, urtezaharra agurtzeko eta berriari ongietorria emateko mahatsak jatea... Urteetan eutsi zaien ohituren garaia dira Gabonak. Badira lekuan lekuko usadioak ere: abenduaren 24an eta 31n Azkoitiko tabernetan egiten duten karten jokoa da horietako bat.

Inork ez daki zehatz-mehatz noiz hasi ziren, baina Begoña Elorzak (Azkoitia, 1935) gogoan du neska koskorra zenean ere egiten zutela. Haren gurasoek, Felix Elorzak eta Kontxa Lizarralde, duela 80 urte hartu zuten Azkoitiko Atraskua taberna, Begoña lau urte zituela, eta urte hartan bertan edo handik urte gutxira hasi ziren karten jokoa egiten.

Jokoa sinplea da. Tabernariak karta sorta bateko kartak saltzen dizkie bezeroei, eta guztiak saltzean, beste sortatik karta bat ateratzen du. Ateratzen duen kartaren berdina duen bezeroak irabazten du saria.

Jokoaren funtsak lehengo bera izaten jarraitzen du, baina urteen joanean izan ditu aldaketak ere. Hasieran, abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean egiten zuten; gaur, aldiz, abenduaren 24an eta urtarrilaren 1ean egiten dute, afal aurreko poteo garaian. Hasieran, sorta "normala" erabiltzen zuten, 40 kartakoa; gaur, aldiz, pokerreko sorta, 52 kartakoa. Hasieran, bezeroek ez zuten kartaren truke ezer ordaintzen; gaur, taberna

bakoitzak zehazten du prezioa, zozkatzen duen sariaren arabera.

Atraskuan bisigua zozkatzen dute azken urteetan, baina beti ez da hala izan. "Aurrena, botilak ematen genituen opari", gogoratu du Begoña, "bi edo hiru botila irabazle bakoitzari". Angula errazioak eman izan zituztela ere kontatu du. "Baina gero sekulako gorakada izan zuen angulen prezioak, eta arkumea ematen hasi ginen, arkume laurdena irabazle bakoitzari".

Beti saiatu izan dira sari tentagarriak eskaintzen, horrek jendea erakartzen duelako. "Bisigu mordo" ekarri behar izaten dute, eta saiatzen dira ahalik eta modu onenean lortzen, kartak garestiegi saldu beharrik ez izateko. Aurten karta euroan salduko dutela uste du. Bisigua bukatzean, gazta eta botilak zozkatzen dituzte. "Jendea afaritara joaten denean bukatzen da jokoa, 21:30ak aldera, eta ordura arte zerbait eskaini beharra egoten da".

Taberna batzuetan urdaiazpikoa zozkatzen dute, beste batzuetan pastelak...Kartaren prezioa, berriz, euroa eta bi euroren artean ibili ohi da.

## Azkoitiarrak eta azkoitiarrak ez direnak

Karten jokoaren aitzakian, jende mordo ibiltzen da Azkoitiko tabernetan. "Eta ez azkoitiarrak bakarrik", Begoñaren esanetan. "Inguruko herrietatik ere badute etortzeko joera: Azpeititik, Elgoibartik eta Zumarragatik... Oso giro polita egoten da; tabernak jendez gainezka egoten dira".

Bezero batzuek diru asko jokatzen dutela ziurtatu du Begoña, eta hala ere, batzuetan esku hutsik joan behar izaten dutela etxera. "Zeuk tokatzea nahi duzun horri sekula ez zaio tokatzen, eta albokoari, lehenengoan". Hori bai, saria tokatzen zaiona gustura asko joaten ei da etxera.



### XV. MENDEKO DORRETXEA

Bilera gela  
Wi-Fi sistema  
Gela guztietan interneta

Enpresetako eskaintzak kontsultatu

Roke Deuna 25, GETARIA · 943-14 01 43 · [www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com)



## MOTOR HOTSA, URTEA AGURTZEKO


Aurten ere motor hotsarekin amaituko dute urtea Aian, abenduaren 31n V. Slaloma egitekoak baitira Ubegun Industrialdean. Aurreneko aldiz 2015ean antolatu zuten Andatza Auzoko Uhartemuño Elkarteko kideek, Lagun Artea Eskuderiarekin elkarlanean. Eta auto gidarien eta ikustera joaten diren herritarren aldetik izandako "harrera onak" urtez urte jarraipena ematera bultzatu ditu antolatzaileak.



Arkaitz Iruretagoiena, *Azpikota*, da ekitaldiaren bultzatzaile-etako bat, eta oso gustura dago orain arteko ibilbidearekin. «Azken uneko burutazioa izan zen; beste hainbat herritan ere egiten dira horrelako slalomak, eta gu ere animatu egin ginen. Auto probak gustatzen zaizkigun lagun taldea bildu ginen, eta berrikerian ari ginela, slaloma urtea amaitzeko egitasmo polita izango litzatekeela iruditu zitzaigun, eta aurrera egin genuen». Abenduaren 31 egun aproposa dela nabarmendu du, gainera, Ubegun industrialdea itxita egoten den urteko egun bakarretakoa delako.

Proban hogeiren bat parte-hartzaile izaten direla azaldu du Iruretagoienak, gehienak inguruko herrietakoak. "Ikustera, berriz, jende mordo eta etorri ohi da". Haren iritziz, slalomak "xarma berezia" du. "Zirkuitu bat osatzen da, eta ibilbidean zehar oztopo batzuk jartzen dira. Ibilbidea hasi baino lehen auto gidariei plano bat ematen diete oztopo bakoitza zein aldetatik zeharkatu behar duten zehaztuz, eta pilotuek hori ahal den denbora gutxienean osatu behar izaten dute". Azkartasunaz gain, trebetasuna ere kontuan hartzen dute slalometan. "Akatsen bat eginez gero, zigortu egiten da pilotua, egin duen denborari denbora gehituz".

Aiako Ubegun industrialdean izango da aurtengo proba ere, eta auto igoeretakoa prozedura bera jarraituko dute. Lehenik eta behin, 09:00etan, egiaztatze teknikoak eta administratiboak egingo dizkiete proban parte hartu behar duten autoei. 10:00etan, entrenamendu saioa egingo dute, eta ondoren erlojuaren aurkako saioak egingo dituzte, "hiru edo lau, parte hartzaile kopuruaren arabera".



**iroa**  
arropa denda

Tirino uria, 1. behea ezkerrean  
Azkoitia  
688 73 02 15  
iroa.azkoitia@gmail.com



Berzeroen artean  
50euroko bonoa  
zorzetatuko da



# Gabonetako bonoak



## **Oihane Oriezabal**

Medikuntza txinatarra, aurpegiko akupuntura, akupuntura ginekologikoa, chi gong terapeutikoa

## **Amala Labaka**

Osteopatia esktrukturala

## **Garbiñe Larrea**

Sendabelar ikastaroak

## **Aitziber Badiola**

Irudi aholkularitza

## **Maider Oliva**

Coach psikologoa

## **Maider Etxeberria**

Psikologoa, psikoterapeuta (laguntza eta dolua)

## **Irantzu Iturbe**

Arteterapia helduentzat

## **Concepción Santos**

Nutrizionista

## **Alba Lorenzo**

Hipopresiboak, haurdunaldiko eta erditze ondorengo yoga, entrenamendu funtzionala

## **Miren Arizmendi**

Pilates

## **Dafne Gurrutxaga**

Yoga

## **Gaizka Mena Gallastetegi**

Mindfulness, meditazioa

## **Fisify**

Fisioterapia zerbitzua

## **Itziar Albizuri**

Naturopata, Ayurveda masajea, erlaxazio teknikak, amasketa

Ibai Ondo, 30 - 20720 AZKOITIA  
sendazenazkoltia@azkoltia.com  
943-47 78 69 - 606 60 08 09

**Kurtsoak,  
tailerrak,  
aurkezpenak,  
hitzaldiak...**

## DIN DAN DON

Din, dan, don, din, dan, don!  
Eguberrion!  
Zorion, zorion!  
Gabonak, din-dan, don!  
Eguberrion!  
Zorion, zorion, Gabonak gabon!

Izar bat hasi da diz-dizka zeruan  
berri onak zabaltzen ari zaigu munduan  
Jai da, jai da, Jaunaren semea,  
askatxo batean dago, lastoen gain-  
nean.

Aingeruak kanta, artzain onak dantza,  
Jainkoaren jaiotzan bakea eta aintza!  
Astoak, ja-ja-ja! Idia, mu-mu-mu!  
estalpe zaharrea kantuan ari zaizkigu.

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,  
izarrari jarraika biak datoz arinka.  
Menditik barrena, haurtxoarengana,  
artzain bakoitzak darama arkumetxo  
bana.



## OLENTZERO

Olentzero joan zaigu  
mendira lanera  
intentzioarekin  
ikatz egitera.  
Aditu duenian  
Jesus jaio dela  
lasterka etorri da  
berri ona ematera.

Horra! Horra!  
Gure Olentzero!

## HATOR HATOR

Hator, hator lagun etxera,  
gaztaina ximelak jatera,  
Gabon gaba ospatuzkeo,  
aitaren ta amaren ondoan,  
ikusiko den/k, aita parrezka,  
amaren poz atseginez.

Eragion/k, lagun, aurreko danboliñari.  
Gaztainak erre artean,  
gaztainak erre arten,  
txipli-txapla, pum!

Gabon gaua pozik igaro  
dezagun.

Hator, hator lagun etxera,  
gaztaina ximelak jatera,  
Gabon gaba ospatuzkeo,  
aitaren ta amaren ondoan,  
ikusiko den/k, aita parrezka,  
amaren poz atseginez.

Eragion/k, lagun, aurreko danboliñari.  
Gaztainak erre artean,  
gaztainak erre arten,  
txipli-txapla, pum!

Gabon gaua pozik igaro  
dezagun.

makina bat este  
Jesus jaio da eta  
alaitu zaitzte.

Horra! Horra!  
Gure Olentzero!  
Pipa hortzetan duela  
eserita dago  
kapoiak ere baditu  
arraultzatxuakin  
bihar meriendatzeko  
botila ardoakin.

**Km0 baserría**

**Bildotsa**  
EUSKAL ESNE  
Lordero lechal  
CON EUSKO LABEL


**Baserría Km0**  
Baserria Km0koak, lotu ondoren  
orkumea haurrez-errea asko izaten  
duzugu. 20-25 minututan prest.  
Mamitsu, Zaporetsu, Hurruskari.

**OPARIA!**  
**BEHI HANBURGUESA Kg 1**  
Muga datur. urtarotik 15

Zuen konfiantza eskertzeko. Whatsapppeaz 605 711 844  
zenbakira produktu eta erosketen tiketaren argazki bat bidaltzen  
badiguzue, behi hamburguesa kilo batekin oporrikako zaituztegu.  
Bila gure zure harategian edo Eraski dendetan



"KaNTUZ BIZI NAIZ eta  
KaNTUZ nAHI BIZI"



## GABEKO IZAR

Gabeko izar argitsuena  
piztutzeakin batera  
hautxo eder bat etorri zaigu  
gaur arratsean etxera.

Ordu ezkeroz etxeko denak  
poztu eta zorutzen gara  
haurra delako zerutik honuntz  
datorren Jainko berbera.

Alai eta pozik kanta dezagun  
hautxo honen etorrera  
gure iluna ailaituzeko  
jaio den argi ederra.

Gaurtik aurrera atzerri hontan  
zorionekuak gara  
haurra delako zerutik honuntz  
datorren Jainko berbera.

## ALAKEN

Alaken, alaken,  
Ala pikula tun paire,  
errespundela pikula tunpa  
Jesus Maria Jainkoa zen. (Bis)

Adiskideok!  
Ikusi dezue zelai horietan artzaina,  
artzain txiki,  
artzain handi,  
artzain mutur leuna.

Alaken, alaken,  
Ala pikula tun paire,  
errespundela pikula tunpa  
Jesus Maria Jainkoa zen. (Bis)

## KANTA ALLELUIA

Kanta kantari daude zeruan,  
kanta kantari aingeruak. (Bis)

Kanta alleluia, kanta alleluia, beti  
alleluia  
kanta alleluia. (Bis)

Epel-epeltsu talde giroan,  
aitaren eta amaren ondoan. (Bis)

Kanta alleluia, kanta alleluia, beti  
alleluia  
kanta alleluia. (Bis)

Gaur jaio zaigu Jesus hautxoa,  
goratu dezagun jainkoa.

Kanta alleluia, kanta alleluia, beti  
alleluia  
kanta alleluia. (Bis)

## GABONAK GABONAK

Gabonak Gabonak, hau zoriona!  
Bertsotan ari zaigu gaur aitona  
A ja ja, barrezka ari da amona.  
Bizarzuri, bizarzuri,  
mendigaiak zuri-zuri,  
Zorionak, Zorionak,  
bertan ditugu Gabonak.

Tximini zulotik norbait sartu da,  
mutur beltz begi gorri aibalio!  
Olentzero dala halaxe dio.  
Bizarzuri, bizarzuri,  
mendigaiak zuri-zuri,  
Zorionak, Zorionak,  
bertan ditugu Gabonak.



- Baserritarren gestio teknikoa
- Kontabilitatea eta fiskalitatea
- Aholkularitza juridikoa

LURGINTZA KOOPERATIBA  
AZPEITIA  
943-81 14 31  
www.lurgintza.eus · amartiarena@lurgintza.eus





*Datozen Gabonetan disfruta ezazu ingurukoekin,  
sukaldatzeaz gu arduratuko gara!*



Txangurru-kroketak



Legatz kokotxak saltsa berdean



Kabrarroka pastela



Behi karrilerak



Txipiroiak tintan



*Premium*  
Txuletu Carpaccioa

**okelan**

• DELICIOUS EXPERIENCES •



*Premium*  
Behi Aspizuna



*Premium*  
Txuleta Tatakia



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA



ZUMAIAKO INSTITUTUA

Urte berrirako bizipoza,  
maitasuna eta ametsak  
opa dizkizuegu

